

# Langabezia: sari mota bat kasu bakoitzerako

Langabeak oinarri arautzailearen % 70 kobratzeko eskubidea dauka lehen 180 egunetan, eta % 50a handik aurrera



**E**konomiaren herrena gero eta handiagoa da Espainiako Estatuan, lanik ez da sortzen eta langabezia-tasa % 25eraino joan da. Ez da harritzekoa, beraz, lanaren ingurukoak izatea herritarren kezka eta elkarrizketa gehienak. Europako Batzordeak estu hartu du Espainiako Gobernuak, eta esan eta esan ari zaio erreformak eta murrizketak egin behar dituela ongizate-sisteman. Askok egin ditu orain arte, eta gehiago ere etorriko direnez, pentsatzekoa da langabezia-tasa are gehiago handituko dela. Eta inor gutxi dago salbu langabeziaren mamutik. Berdin du enpresa berean 20 urtean aritu edo aldi baterako kontratua eduki. Beraz, langabezia-saria zenbatean geratuko den edo litzatekeen kalkulatzeko ikasi beharra dago... Herritar bakoitzak edukiko du bere lan-ibilbidea, askotariko baldintzak egon litezke tartean, eta horiek guztiak kontuan hartu behar dira kalkulatuak egiteko. Hona hemen ohiko izan daitezkeen egoera batzuk:

## Nola kobratzen da langabezia-saria bizitza guztia enpresa berean aritu ondoren?

Hauxe da kalkulatzeko hipotesi oinarritzakoa, ohikoena eta errazena: urte luzeetan besteren kontura lanean aritu den pertsona batena. Kasu honetan, langabezia-saria zenbatekoa izango den jakiteko, azken sei soldatetako kontingentzia arruntak hartu behar dira kontuan. Beharrezkoa da eguneko oinarri arautzailea kalkulatzeko, eta hori lortzen da azken sei soldatak batu eta 180 egunekin zatituta.

Lehen 180 egunetan, oinarri arautzailearen % 70 kobratzeko eskubidea

izango du langabeak, eta hortik aurrera, oinarri arautzaile horren % 50 kobratuko du. Hori izan da, hain zuzen, azken lan-erreformak egin duen aldaketetako bat (uztailean onartu zuten). Ordu arte, oinarri arautzailearen % 70 kobratzen zen lehen 180 egunetan, eta % 60 handik aurrera. Langilea luzean aritu denez lanean, pentsatzekoa da gehienez dagokion aldian kobratu ahal izango duela saria: 720 egunez, hain zuzen.

## Aldi berean bi enpresatan ari den langilea, lanaldi erdian bietan. Zenbateko saria dagokio?

Bi lan-kontratuak aldi berean bukatuko balira, honelaxe kalkulatu behar litzateke langabezia-saria: lan egindako azken 180 egunetako langabezia-kontingentzietan dagozkien kotizazio-oinarrien batez bestekoa atera behar da lehenik. Kalkulatu eguneko oinarri arautzailea zenbatekoa den jakiten da horrela, eta oinarri horri ezartzen zaizkio lehen aipatu ditugun ehunekoak: lehenbiziko 180 egunetan, oinarri arautzailearen % 70 kobratuko du, eta hortik aurrera, % 50a.

Aldiz, kontratua enpresa bakarrak eteten badiu, aukera izango luke lana eta langabezia-saria bateragarri egiteko (lanaldia mugatua denez, horren arabera izango da langabezia). Hau da, Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) lan egin gabeko lanaldiagatik soilik ordainduko dio saria, eta beti lanaldi arrunt bati –zortzi ordukoa, gehienez– dagokion ordaina berdindu arteko proportzioan.



## Ba al dago modurik lan egin eta aldi berean langabezia kobratzeko?

Aurreko kasuak erakusten du badela modua horretarako. Ahal da lanaldi erdian aritu eta beste nonbait egingako lanari dagokion langabezia-saria kobratu. Saria ez da izango lanaldi hari zegokion guztia: une horretan daukan lanaldiak hartzen duen proportzioaren arabera murriztuko zaio.

## Autonomoek ba al dute langabezia-saria kobratzerik?

Bere kontura ari diren langileek (autonomoek) ez dute eskubiderik ohiko langabezia-saria jasotzeko. Hala ere, eska dezakete jardura etetegatik ematen duten prestazioa. Autonomoek daukaten babes-sistema berezi bat da, eta hilean kopuru bat kobratzeko aukera ematen die. Hori eskuratzeko, baldintza batzuk betetzen dituztela frogatu behar dute, lan-kontingentziak konpondu edukitzea, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota ordainduta edukitzea, eta jardura eten aurreko 12 hilabeteetan, gutxienez, jarraian kotizatu izatea. Gainera, frogatu egin behar da jardura eteteko arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, produktiboak edo antolakuntzari dagokionak direla, eta langileak ez duela iritsi erretiroa hartzeko adina. Eta frogatu egin behar da, halaber, langileak konpromiso bat sinatu duela SEPErekin, lan-formazioa emango dioten eta laneratze-bidean jarriko duten ekintzak egiteko, berriz ere lanean has dadin.

## Alaba edo seme adingabe bat zaintzeko lanaldi murriztuan ari denak zenbateko langabezia-saria izan dezake?

Norbaitek lanaldi murriztua eduki badu 8 urtez azpiko adingabe baten legezko zaintza egin behar izateko edo zuzenean adingabea zaintzeko, eta lanik gabe geratzen bada, langabezia-sariaren oinarri arautzailea kalkulatzeko, murrizketarik gabe lanean arituz egokitu izango zitzaiokeen kotizazio-oinarria hartzen da kontuan; hau da, lanaldi osoan aritu izan balitz bezala hartuko zaio kontuan.

[www.consumer.es](http://www.consumer.es)

## Zenbat denboraz kobratuko da langabezia-saria?

Gizarte Segurantzari kotizatu diren egunen arabera izango da langabezia-sariaren iraupena. Honako taulan ageri dira xehetasunak:

Egun kotizatuak	Zenbat egunetan kobratuko da saria
360tik 539ra (12-17 hilabete)	120 egunetan (4 hilabete)
540tik 719ra (18-23 hilabete)	180 egunetan (6 hilabete)
720tik 899ra (24-29 hilabete)	240 egunetan (8 hilabete)
900tik 1.079ra (30-35 hilabete)	300 egunetan (10 hilabete)
1.080tik 1.259ra (36-41 hilabete)	360 egunetan (12 hilabete)
1.260tik 1.439ra (42-47 hilabete)	420 egunetan (14 hilabete)
1.440tik 1.619ra (48-53 hilabete)	480 egunetan (16 hilabete)
1.620tik 1.799ra (54-59 hilabete)	540 egunetan (18 hilabete)
1.800tik 1.979ra (60-65 hilabete)	600 egunetan (20 hilabete)
1.980tik 2.159ra (66-71 hilabete)	660 egunetan (22 hilabete)
2.160 baino gehiago (72 hilabete)	720 egunetan (24 hilabete)